

## VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

6. kronika: **Euskararen jarraipena**

Iragan kronikan hizkuntzen transmisioa aztertu genuen, Iparraldeko familia guziak kontuan hartuz, euskaldun ala erdaldun. Eta ikusi dugu frantsesa dela gehiengo handian haurtzaroko hizkuntza, erdaldunak %70 baitira. Orain ikusiko dugu zer gertatzen den familia euskaldunetan.

**Familia bidezko transmisioa, bi burasoak euskaldun direlarik**

Hemen aztertzen dugu zein den familia bidezko transmisioa burasoen hizkuntza gaitasunaren arabera. Bikoteak bi zatitan ezartzen ditugu biak euskaldun edo bat eskualdun eta bestea erdaldun. Eta bi kasuetan konparaketa egiten da guraso guziak hartuz baina zaharrak nagusi eta bestalde guraso gazteak 3 eta 15 urteko haurrak dituztenak.

*Haurren lehen hizkuntza, bi burasoak euskaldun direlarik*

Haurren lehen hizkuntza	Bi burasoak euskaldun
<u>Orokorrean</u>	
Seme alaben lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 61
euskara frantsesarekin;	% 15
frantsesa bakarrik.	% 24
<u>Buraso gazteetan</u>	
2-15 urteko haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 66
euskara frantsesarekin;	% 20
frantsesa bakarrik.	% 14

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

1. Orokorrean edo lehenagoko bikoteetan biak euskaldun zirelarik, %76 haurren lehen hizkuntza euskara zen (%61entzat euskara bakarrik, %15entzat frantsesarekin batera) eta frantsesa bakarrik %24entzat. Beraz haurren laurden batentzat ez da izan euskararen transmisiorik, bi burasoak euskaldun izanki.

2. Bikote gazteagoetan, 3-15 urteko haurrak dituztenetan, biak euskaldun direlarik %86 haurren lehen hizkuntza euskara da (%66entzat euskara bakarrik, %20entzat frantsesarekin batera) eta frantsesa bakarrik %14entzat. Bikote gazteekin euskararen transmisioak 10 puntu irabazi ditu.

## **Familia bidezko transmisioa, buraso bat euskaldun**

*Haurren lehen hizkuntza, buraso bat euskaldun delarik, bestea ertaldun*

Haurren lehen hizkuntza :	Buraso bat euskaldun, bestea ertaldun
<u>Orokorrean</u>	
Seme alaben lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 0
euskara frantsesarekin;	% 16
frantsesa bakarrik.	% 84
<u>Buraso gazteetan</u>	
2-15 urteko haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 0
euskara frantsesarekin;	% 54
frantsesa bakarrik.	% 46

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

1. Orokorrean, buraso bat euskaldun zelarik, %16 haurren lehen hizkuntza euskara zen frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %84entzat. 0 haurrentzat euskara bakarrik. Beraz, euskararen transmisioa arrunt ahula zen.

Bi burasoak ertaldun zirelarik, haur guzien lehen hizkuntza frantsesa zen bakarrik.

2. Bikote gazteagoetan, 3-15 urteko haurrak dituztenetan, buraso bat euskaldun delarik, bestea ertaldun, %54 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %46rentzat. Beraz bikote elebidun gazteekin euskararen transmisioak 38 puntu irabazi ditu. Hau da 2016ko inkestaren berri on bat.

Bi burasoak ertaldun direlarik, lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik %99 haurrentzat eta euskara frantsesarekin ehuneko batentzat. Aitatxi-amatxiekin ote?

### **Buraso ertaldunek euskara ikas balezate?**

Ezberdintasun handia da burasoen eta seme alaben artean hizkuntza gaitasunari begira. Konpara ditzagun lehen mailako ikasleak eta beren burasoak. Ama eskolako haur gazteenen burasoak 1984 eta 1989 artean sortuak dira eta inkesta soziolinguistikoaren arabera % 15 dira euskaldunak, haurrak % 45 direlarik ama eskola elebidunetan edo murgilbidean. Beraz haurretan % 30ek ez dute buraso euskaldunik. Ohar berdintsua egin genezake 10 urteko eskolierrekin.

Eta buraso erdaldunek ere euskara ikas balezate beren haurrekin batera ? Hain zuzen AEK elkarteak gau eskolak eta barnetegiak antolatzen ditu jende helduak euskalduntzeko, helburu profesional edo pertsonalen betetzeko. Zenbat burasok baliatzen dute aukera hau ? Ez dugu 2016ko emaitzarik, baina baditugu 2008-2009 ikasturtekoak eta aitzinagokoak. 2008an 879 ikasle ziren gau eskoletan. 418 (%40) ikaslek haurrak bazituzten eta hauetan 183k zioten beren haurrek euskara ikasten zutela eskolan, ez baita hain anitz araberan, %44. Galdegin zeielarik « *Zeratarako euskara ikasten duzue ?* » « *Nire haurrak euskara ikasten laguntzeko* » erantzuna eman zuten 179 ikaslek. Beraz ikasle familiatuen %43. Hots euskara ikasten duten haurren buraso guzien motibazioa da. Euskalduntzeko nahikundea bada buraso batzuegan, guti badira guti.

Halere baldintza hoberenetan, kontuan hartuz buraso gazteen jokamoldea hobetzen ari dela, kontuan hartuz ere haurtzaindegiak euskalduntzen ari direla, familia bidezko transmisioa ez da azki euskararen jarraipena segurtatzeko belaunaldiz belaunaldi. Inkestek erakusten dute oraingo burasoen hizkuntza gaitasuna ahulegi dela beren haurrekin euskaraz mintzatzeko. Beraz aterabidea da eskola bidezko euskararen transmisioa familien lagungarri izan dadin. Ikus zertan den gaurregun eskolaren eragina euskararen jarraipenean.

### **Eskola bidezko hizkuntzen transmisioa**

Euskararen eskola transmisioa indartuz doa, aspaldidanik Ikas eta Seaskaren eraginez, eta bereziki Euskararen Erakunde Publikoa sortu denetik 2005ean. Orduan Lehen Mailan 61 eskola ziren euskara irakasten zutenak eta 120 frantsesez bakarrik ari zirenak: heren bat euskararekin eta bi heren frantsesez bakarrik. 2016an egoera alderantziz da, bi heren euskararekin (155 eskola) eta heren bat frantsesez bakarrik (84 eskola).

Euskara irakasten duten ikastetxeetan, ikastolak (30) euskararen osoki murgilduak dira (frantsesa ere irakatsiz) eta besteek euskara denbora erdiz derabilte. Baina ama eskola batzuetan elebitasuna indartzen ari da, murgilbidea erabiltzeraino lehen bi edo hiru urteetan (12 sare publikoan, 18 girstinoan).

Irakasleen aldetik ere aitzinamendua handia egin da hamabi urtez. Lehen Mailan, 2004an, 229 irakasle ziren hiru sareetan, hots Publikoan, Girstinoan eta Seaskan (91 + 45 + 93), gaurregun 350 irakasle dira (145 + 65 + 140).

Taula honetan agertzen dira euskara ikasten dutenen kopuruak, Lehen eta Bigarren Mailan 2016-2017ko ikasturtean. Hiru sareak bereizten ditugu eta aldi oroz emanak dira euskararen ikasleak zati (/) ikasle go osoa, araberako ehunekoa zenbatuz. Adibidez, eskola publikoetan 5.294 ikaslek euskara ikasten dute, orotara 17.019 ikasle direlarik. Proporzioa % 31,1 da.

*Euskarazko ikaskuntza ikaslego osoari konparatuz*

Euskarazko irakaskuntza	Lehen Mailan	Bigarren Mailan	ORO HAR
publikoa	5.294/17.019 % 31,1	1.236/11.745 %10,5	6.530/28.764 %22,7
giristinoa	2.274/6.410 %35,5	901/7.506 %12,0	3.175/13.916 %22,8
Seaska	2.399 %100	1.030 %100	3.429 %100
ORO HAR	9.967/25.828 %38,6	3.167/20.281 %15,6	13.134/46.109 %28,5

Source : Office public de la langue basque, bilan de la rentrée 2016.

Laburbilduz eta borobilduz, Lehen Mailan 26.000 eskolierretarik 10.000k euskara ikasten dute, gutienez denbora erdiz, % 39k. Bigarren Mailan neurria askoz ahulagoa da. Euskara lantzen duten 29 kolegioak eta 8 lizeoak elkarrekin zenbatuz, 20.000 ikasletarik 3.000k gai zenbait euskaraz ikasten dituzte, %16. Bi mailen arteko gainbehera laugarri horri lehenbailehen aterabide bat aurkitu behar zaio. Hain zuzen gaztetxoek bere nortasuna finkatzen duten denboran euskarari hartze duen lekua eman diezaioten.

Oro har bi mailetakoko 46.000 ikasleetan 13.000 baino gehixagok euskara lantzen dute. Anitz dea ala guti? Erreferentzia bat badugu. UNESCO egiturak, 1996an hiltorian ziren 600 hizkuntza aztertu zituelarik marra gorri bat ezarri zuen galtzeko arrikua neurtzeko : *“Hizkuntza bat arriskuan da, orokorki, ez delarik irakatsia haurrei eskoletan edo hizkuntza elkargo bateko haur andana handi bati, %30 gutieneko maila da haurren irakuntzarako”*. Marra hau baino beherago hizkuntza galtzeko arriskuan da, marra hau baino gorago indarberritzeko bidean. Ipar Euskal Herrian lehen mailako ikasleak (%38,6) euskaldutzeko bide onean dira. Oro har, Seaskako ikasleak dira bide segurenean, beste bi sareetan marra gorriaren behean direlarik, eta Iparraldean ere orokorki (%28,5).

**Geroari so eginez**

Beste galdea hau da, euskara ikasten duten haurretan zenbat euskaldun bilakatuko dira? Erantzunaren emateko Europako Hizkuntza Estandarra erabiltzen dugu. Hizkuntza berri bat ikasten dutenen gaitasuna sei mailatan banatua da. A1 eta A2 hastapeneko mailak dira hizkuntza berria ulertzen dutenena. B1 atalartze maila da, ikaslea hiztun bilakatu da eguneroko komunikazioan. B2 mailan mintzamenaz gain, ikasleak irakurmena eta idazmena ere ardietsi ditu. C1 eta C2an direnek, kultur gaitasunera helduak dira, literatura, hiztegi bereziak eta beste.

Orain arte helburu ofiziala zen ikasleak A2 edo B1 mailetaraino heltzea. Orain helburua da B2ra heltzea 13 urteak aitzin. Hain zuzen azterketa bat egin da eta ondoriak agertu dira EEPn 2017ko irailaren 21ko aholku biltzarrean. Hirugarrenean, B2 maila dutenen ehunekoak hauek dira : sail elebidun publikoan %65, sail elebidun girstinoan %75, Seaskan %98.

Ehuneko hauk 2016-2017 ikasturteko lehen mailan euskara ikasten duten guziera aplika daitezke, asmatuz euskaltasuna lortuko dutela goiz edo berant. Lehen mailako 26.000 ikasleetarik 10.000 noizbait B2 mailara helduko dira, hots % 29 ikasle euskaldun bilakatuko dira. Doi-doia marra gorriaren heinean.

Euskararen jarraipena segurtatzeko helburu ausartago bati buruz jokatu behar dugu. Hain zuzen, 2014an, Lurralde Kontratua eztabaidatu zelarik, euskarari buruzko 6. Batzordeak proposamen hau egin zuen:

*"Euskararen transmisioari indar berri bat eman helburutzat hartuz*  
*- eskolako haurretan lautarik hiru sare elebidunetaratzea (orain %44);*  
*- ama eskola eta Hirugarrenaren arteko jarraipen neurria %75 (orain %56)».*  
 Geroztik bai Euskarren Erakunde Publikoak baita Euskal Elkargoak ere beren gain hartu dute erronka hau. Helburua gauzatzen bada erran nahi luke gazteen erdia ( $\%75 \times \%75 = \%56$ ) euskaldunduko dela epe ertain batean.

Helburu ausarta da baina egingarria, familiek, haurtzaindegiek, ikastetxeek, elkarteek eta erakundeek beren indarrak eta baliabideak metatuko dituzten neurrian.

*Erramun Bachoc , 2017-12-03.*